

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Suteak iaz Erdialdean erretako mendiak suspertze motela hasi du

Uztailean Ministerioak Nafarroako historiako suterik handienaren kalteak arintzeko egindako premiazko lanak amaitu dira

Osteguna, 2017.eko abuztuak 24

Ingurumeneko arduradunak eta Nafarroako Gobernuo Suhiltzaileak 2016ko abuztuan suteak Erdialdean erretako eremuan izan dira. Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garciak, Ingurune Naturaleko Zerbitzuko zuzendari Fermin Olabek, Nafarroako Suhiltzaileen zuzendari Javier Bayonak eta Foruzaintzako arduradun



Zuzendari nagusia, Ingurumeneko eta Suhiltzaileen teknikariak, eta udal ordezkariak eremuetako batean.

Salvador del Pinok mendiak izandako bilakaera eta egindako lanak zuzenean ikusteko aukera izan dute. Berreskuratze hori indartzen duten beste jarduera batzuk ere prestatzen ari dira. Nafarroako Gobernuo teknikariek hurbiletik jarraitzen duten eremuaren bilakaera, eta pozik agertu dira gaur egungo suspertze-erritmoarekin. Hala ere, ohartarazi dute oraindik "hasierako" egoera batean daudela.

Egiaztatu duten moduan, kaltetutako mendiaren zati handi bat (% 80 inguru) berez leheneratzen ari da. Hostozabalen, abariztien, artadien edo pinuen kasua dugu. Horrez gain, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak azken seihilekoan Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko Departamentuak eskatuta azken seihilekoan egindako jarduera batzuk zuzenean ikusi dituzte.

Bisitaren aurretik Nafarroako Gobernuak bilera bat egin du Puiun, Añorbeko, Artaxoako, Barasoingo, Garinoingo, Puiuko eta Tafallako udal ordezkariekin, eragindako eremua berreskuratze eta haren jarraipena egiteko lanak jakinarazteko. Lanak TRAGSA enpresa publikoak egin ditu eta nagusiki hauek izan dira: erretako zuhaitzak moztu, landareak, pistak hobetzea, abereen itxiturak kentzea eta berriro jartzea eta ereiteak, larreko fauna eta zinegetikoa hobetzeko.

Premiazko ekintzak dira eta katastrofeari berehala erantzuteko. Hurrengo asteetan tokiko erakunde

bakoitzarekin xehetasunez ebaluatuko dira. Helburu honekin, Ingurumenak topaketen egutegi bat antolatu du, eta horietan lurrak leheneratzeko bigarren fasean barne hartu beharko diren lanak baloratuko dira. Ekintzak Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko Departamentuak egin eta gauzatuko duen plan batena jasoko dira.

Gogoratu behar dugu ezbeharra 2016ko abuztuaren 25ean gertatu zela, eta Nafarroan azken 30 urteetan gertatutako suterik handiena izan dela. AP-15 Nafarroako Autobidearen ertzean gertatu zen, Puiuko eremuan. Guztira 3.535 ha erre ziren, 37 km-ko perimetro batekin. Baso-masei dagokienez, 1.455 ha kaltetu ziren. Eragindako eremua Mediterraneoeko ohiko mosaiko bat zen, nagusiki nekazaritza-lurrez, artadiz eta abariztiz, hariztiz, sastrakaz, pinuz eta neurri txikiago batean larizio pinuz eta altzifrez osatuta zegoen.

Berezko berritzea

Urtean zehar ikusi da berezko bilakaera positiboa izan dutela hostozabaleko zuhaitzek, arteek, abaritzek eta erkametzek. Suteak gehien eragindako eremuetan, zuhaitzak goitik guztiz erreta zeudenetan, oinarritik muskiltze garrantzitsua ikusten da, eta zuhaitzak gutxien kaltetutako eremuan, adaburuan kimuak ditu, beraz, bere zati bizia berritzen ari dela egiaztatu da.

Pinudi-masei dagokienez, alepo pinuko eremuetan, sura egokitutako espeziea dena eta haren pinaburuak basoko suteek eragindako tenperatura altuekin berez irekitzen direnak, zenbait kasutan, erne diren pinaburuak dagoeneko ikusten dira. Hori dela eta, ziur asko, masa horiek berez berrituko dira.

Horrez gain, belar, belardi, sastraka eta zuhaixka mediterraneoko eremuetan, landare aromatikoaren, ezkairen, erromero eta ipuruen kolonizazioa antzematen da, besteak beste, lurreko hazien artean daudenez, udaberriko euriekin aktibatu direlako.

Egindako jarduera nagusiak

Hauek izan dira azken urte honetan zehar egindako jarduera nagusiak:

- Gutxi gorabehera suak kaltetutako 35 ha-ko pinuak **moztu dira**, berez berritzeko eta izurriak eta gaixotasunak agertzea saihesteko.

- **Erretako zuhaitz autoktonoak kendu dira**: 15.000 oin landare autoktono inguru ebaki eta prozesatu dira, hala nola erkametz (Quercus faginea) eta artea (Quercus ilex rotundifolia). Bilakaera ikusita, goian kimurik ez zituztenak kendu dira, zepak eta sustraiak ateratzen laguntzeko.

- **70 ha inguruko landaretzak**, nagusiki higitze zantzuak antzematen ziren eremuetan, eta zehazki, errekastoren batean, bere ingurumen-balioa berreskuratzeko. Horrez gain, espezie hauen **63.500 landare** landatu dira: artea, erkametz, olibondoa, almendrondo, alepo pinua, ena arrunta, patxarana, ezkaia, intxaurrea eta lizarra. Hodi babesleak erabili dira, lehen urteetan mikroklima bat sortzeko, eta belarjaleek eragindako kalteetatik babesteko.

Landatze horiekin, suaren ondorioz kaltegarriena arintzea lortu da, hots, substratuaren galera etetea. Malda duten eremuetan, lurra behin erreta sostengurik gabe geratzen da eta euriaren eta haizearen eraginez gertatzen den lur-galerak asko zailtzen du basoak berritzea.

- Sutean zehar gehien kaltetutako **pistak hobetu dira**, baita baso-usten bat itzaltzeko lanen aurrean beharrezkoak direnak ere. Horrela, 3.790 metro hobetu dira, nekazaritza-erabilerrako, erabilera zinegetikorako eta zur-erabilerrako (etxeko zurak). Horrela, materiala ekarri da, fintze eta trinkotze lanak



Parke eolikoaren eremuan egindako berritzelanak.

egin dira eta arekak garbitu dira.

- **Itxiturak**: 10.000 metroko itxitura kendu da, sutearen ondorioz ezin izan zirelako erabili. Dagoeneko 4.310 metro itxitura berri jarri dira. Horrela, fauna basatiak eta hegazti-faunak kaltetutako itxituren arriskua kendu da.

- Garinoaingo **haritz** monumentalaren inguruan erretako 70 metroko **zurezko hesia berriro jarri** dute, goiko zatia eta sustraiak babesteko.

- **Larreko fauna eta zinegetikoa hobetzeko erreiteak**: basoko fauna eta zinegetikoa elikatzeke balio duten larreak sortzeko lanak egin dira aldameneko zenbait lursailetan.

Mantentze-lanak

Mendiaren ohiko balio eta erabilerak mantentzeari

dagokionez, prebentzio-gisa eta sutearen ondoren, eragindako eremuan mugak jarri zitzaizkion artzaintzari. Hala ere, egindako aldizkako azterketek eta landaretzaren aldeko bilakaerak iragan udaberrian murrizketa hori kentzeko aukera eman zuten, abereek mendian egiten duten lan positiboa baloratu zutelako.

Horrela, **eremuan abeltzaintza-erabilera tradizionala berreskuratzea bultzatu da**, eta mendietan etekina atera da. Beraz, baso-baliabidearen balioa handitu da. Edonola ere, zenbait eremutako murrizketa mantendu da, higadura-prozesuak izateko arriskua dutenetan, eta basoa berritzeko jarduerak egin diren eremuetan (ebakitzeko, erreiteko eta landatzeko eremuak).

Lurren erabilera zinegetikoari

dagokionez, Añorbeko NA-10.084, Artaxoako NA-10.452, Barasoain-Garinoain-Orisoaino NA-10.395, Puiuko NA-10.489 eta Tafallako NA-10.478 ehiza-barrutietan egondako kaltea dela eta, 2016-2017 ehiza-denboraldian, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ehiza larriko bilketak eragindako azaleraren konpentsazioa gaitu zen, ehizaldiekin Sabaizako NA-10.298 barrutian (Nafarroako Gobernuarena dena).

Horrez gain, eta lurren berrikuntza arintzeko, Departamentuak eta Erdialdeko Partzuergoak **suak kaltetutako pinudien baterako baso-aprobetxamendua** bultzatu dute, oraindik baso-aprobetxamendua izandako aukera agertzen zutelako, biomasarako erabiltzeko. Horrela, koniferoen 160 ha-ei dagozkien zura enkantean jarri eta zur-enpresa bati esleitu zaio, 26.000 euroren truke. Hemendik gutxira hura aprobetxatzen hasiko da.

Bestalde, **faunaren jarraipena** egiten ari da, bai zinegetikoa bai ehiza-fauna bai basatia. Emaitzak espezie kopuruaren jaitsieran antzematen da, baina oraindik ez dira berreskuratu sutearen aurretik zeuden dentsitateak. Hala ere, nabarmendu behar da hegazti-espezia enblematiko babestuek, hala nola arrano beltzak, erretako eremua normaltasunez erabiltzen jarraitzen dutela.

Galería de fotos



Irudi honetan, beheko mendia berez berritzen ari dela ikusten da.



Zuzendari nagusia, Olabe (makurtuta) eta Tafallako alkatea, Arturo Goldaracena, berrikuntzaren aurrerapena ikusten.